

Zelula ama epitelialak txertatuta, saguetan ilea birsortzea lortu dute

Pensilvaniako Unibertsitateko Perelman Medikuntza Fakultateko ikertzaile batzuek zelula ama helduak zelula ama epitelialakbihurtzeko sistema garatu dute.

Burusoilduta dauden pertsonen inoiz berriro ere ilea izateko aukera zabaldu die *Nature Communications* argitalpenean ezagutzera emandako lanak, besteak beste, saguek ile berria sortzea lortu baitute iker-tzaileek. Ikerketa egin duten zientzialarien ustez, burusoildutako pertsonetan ilea birsortzeko aukera zabalduko du ikerketak etorkizunean.

Zelula amen hazkuntza-faktoreak kontrolatuz, Xiaowei Xuk zuzentzen duen lantaldeak frogatu du zelula ama totipotentialak programatu egin daitezkeela zelula ama epitelialak kantitate handian sortzeko.

Lortutako zelula ama epitelialak saguen dermiseko foli-

kulu-zelula induktiboekin nahastu, eta immunogutxitutako saguen azalean txertatu dituzte. Ikertzaileek frogatu ahal izan dute txertatutako zelulak gai direla giza epidermis funtzionala sortzeko. Ez hori bakarrik, giza ile-folikulu-egitura antzekoa duten folikuluak ere sortu dituzte.

Ile folikuluen funtsezko osagaiak sortzeko gai diren zelula ama epitelialak sortzen diren lehen aldia izan da. Kantitate neurgarrietan sortzen diren lehen aldia da”, adierazi du Xu ikertzaileak.

Aurrerapen handia izan arren, burusoilek berriro ilea izango duten eguna urruti dago oraindik, zelula totipotentialak sortutako zelula ama epitelialak ezin baitira gizakietan erabili. Xuk azaldu duenez, ile folikuluek, zelula epitelialez gain, dermis-papila izeneko zelula amak dituzte, eta “pertsonen ilea galtzen



Aurrerapen handia izan arren, burusoilek berriro ilea izango duten eguna urruti dago oraindik. ARG.: ELHUYAR ZIENTZIA.

dutenean bi zelula motak galtzen dituzte. Guk arazo garrantzitsu bati eman diogu irtenbidea, ile folikulua- osagai epitelialarekin zerikusia duenari. Dermis-papilak sortzeko modua aurkitu beharko dugu orain. Baina, oraingoz, inork ez du lortzerik izan”, argitu du Xu doktoreak.

Xiaowei Xuk zuzentzen duen lantaldeak dermiseko fibroblastoeekin ekin zion ikertzeari. Ikerketaren lehen fasean, fibroblastoei hainbat gene gehituta, horiek zelula ama totipotential induzitu bilakatzea lortu zuten, eta, ondoren, zelula ama totipotentialak zelula ama epitelialak bilakatu dituzte. ●

Izana omentzeko, izena eman

Darwinen jaiotegunaren urteurrenean, haren izena eman diote kakalardo bati

Charles Darwin duela 205 urte jaio zen. Haren omenez, joan den otsailaren 12an haren abizenarekin batailatu

zuten kakalardo bat. Zehazki, kakalardoaren generoak eramango du Darwinen izena, espeziea izendatze-

ko David Sedaris idazlearen abizena aukeratu baitute. Horrenbestez, *Darwinilus sedaris* izen-abizenak izango ditu kakalardoak.

Aipatzekoa da espezie horretako bi banako baino ez direla ezagutzen, biak 1935 baino lehen jasoak. Haietako bat Darwinen berak hartu zuen, Beagle ontziarekin Bahía Blancara iritsi zenean. Gero, ordea, galdu egin zen, eta 2008an aurkitu zuten, Londresko Historia Naturaleko Museoa.

Espeziearen deskribapena Tennesseeko Unibertsitateko entomologo batek egin du, eta ZooKeys aldizkarian argitaratu du. ●



Darwinilus sedaris. ARG.: LONDRESKO HISTORIA NATURALEKO MUSEOA/CC-BY 4.0.